

## **UEMAko udaletako 125 alkate eta hautetsik Auzitegi Konstituzionalaren epaia salatu dute, eta adierazi dute euskaraz jarraituko dutela lanean**

*Epaia udalei dokumentuak euskaraz egiteko aukera baliogabetzen die. Horren harira, lege-esparru eraberritua eskatu dute, euskararen normalizazioan aurrera egiteko.*

**Usurbilen, 2023ko uztailaren 7an**

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Euskadiko Toki Erakundeen Legearen 6.2 artikulua bertan behera utzi ondoren, UEMAko Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 125 alkate eta hautetsi inguru bildu dira, hainbat kolore politikotakoak. Hitzordua gaur, ostirala, Usurbilen izan da, **Auzitegi Konstituzionalaren erabaki hori salatzeko, udalek euskaraz jarduteko duten eskumena defendatzeko eta lege babesarekin edo gabe euskaraz lan egiten jarraituko dutela berresteko.**

Iraitz Lazkano UEMAko jarduneko lehendakariak zein gaur Usurbilen bildutako udal ordezkariak adierazi dute “nahikoa” dela eta “marra gorri guztiak” gainditu direla. Lazkanok gogorarazi duenez, Toki Erakundeen Legearen arabera udalek aukera dute dokumentuak erabat euskaraz egiteko, eta orain aukera hori baliogabetu da. UEMAko jarduneko lehendakariaren arabera, epai honekin, **udalei “eskumena kendu zaie” beren barne-funtzionamenduan hizkuntzen erabilera arautzeko**, eta “muga argi” bat ezarri: “Administrazioan, gaztelaniaren makuluarekin soilik erabil daiteke euskara. Hots, gaztelaniaz mugarik gabe egin daiteke; udalek euskaraz egiteko aukera izatea, zinegotzien hizkuntza-eskubideak errespetatuta, hori *supremazia* dela dio auzitegiak”.

Aurrera begira, Lazkanok esan du **orain arte bezala jarraituko dutela lanean UEMAko udalek: “Guk horrelaxe jarraituko dugu, euskaraz funtzionatzen; horretarako bide luzea egin dugulako eta gure konpromisoa eta nahia delako”**. Horrez gain, nabarmendu du UEMAko udalek ez dituztela herritarren hizkuntz eskubideak urratzen: “Administrazioan askotan ez bezala, UEMAko udaletan, hizkuntz eskubideak bermatzen dira”. Baliogabetutako artikulua jasotzen duen legea Eusko

Legebiltzarrak onartu zuen 2016an, **gehiengo zabalarekin**, 1982ko Euskararen Legeak berak baino adostasun zabalagoarekin.

Eraso hau ez da ezerezetik sortu. Lazkanok gogorarazi du **ultraeskuina** dagoela honen oinarrian: “VOXen salaketa bat. Duela bi urte, VOXek EAeko Justizia Auzitegi Nagusira jo zuen, udalen hizkuntza-jarduna arautzeko 2019ko dekretuaren kontra. Alegia, **dekretua onartu eta bi urtera**, eta **EAEn batere zinegotzirik eduki gabe**”. Bigarren urratsa EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak egin zuen, Lazkanok gogorarazi duenez. **Epaileek dekretuaren oinarriaren aurka** jo zuten, eta Madrilerara bidali zuten kasua, Espainiako Auzitegi Konstituzionalera. Eta hirugarren pausoa auzitegi horrek eman du: **6.2 artikulua baliogabetu du**.

Lazkanoren arabera, hau ez da berria UEMAko udalentsat, gogoan dutelako duela urte batzuk zerenolako **arazoak** izan ziren gai honekin lotuta: “Aktak euskaraz egiteko debekuak, udalak UEMAn sartzeko trabak... Epaitegien ezpatapean egin genituen urteak”. Horrez gain, gehitu du azkenaldian **“kutsu bereko” epai bat baino gehiago** jaso dituztela.

Horregatik guztiagatik, gaur Usurbilen bildutako ordezkariak zabalak irmo aldarrikatu du euskarak “estatus juridiko berria” behar duela. Horregatik, azaroaren 4an UEMA ere izango da Euskalgintzaren Kontseiluak deitutako protestan. “Euskarak arnasa behar du. **Egin dezagun bat, lor dezagun euskararen sustapenean urrats erabakigarriak egiteko lege-esparru eraberritu bat**. Badago premia, badaukagu erantzukizuna. Bila ditzagun bideak”.